

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure proiektuaren izena “Aterki lehorgailua” da. Gure proposamena aterkiak modu azkar, eraginkor eta eroso batean lehortzen dituen aterki-ontzi lehorgailu automatiko bat da. Gure aterki-ontzia gainontzeko aterki-ontzietatik bereizten duen ezaugarria hurrengoa da: aterkia ontzian sartu eta momentuan lehortuko da aireari esker eta ez du hezetasunik utziko. Gainera, gaur egungo aterki-ontziek plastikoa erabiltzen dute aterkiek ingurua ez bustitzeko, gure proiektuari esker, plastikoaren erabilera murrizten lagunduko genuke.